

albisteak analisiak elkarrizketak



2014ko otsailaren 05a | Ordua Euskal Herrian 12:11:55

EGUNEKOAK

ASTEKARIA

BLOGAK

MULTIMEDIA

Bilatu ARGIA-n

Argia Ingurumena

POLITIKA | NAZIOARTEA | GIZARTEA | EKONOMIA | EUSKARA | INGURUMENA | HISTORIA | TEKNOLOGIA | KULTURA | ZIENTZIA | IRITZIA

INGURUMENA | LANDAREAK | Maspila | Mizpira | Elorria | Tabakoa | Laharra | Laborrena | Tomatea | Kiwia | Baobab | Intsusa | Zihaurria | +

PDF BERTSIOA | INPRIMATU | IRUZKINAK

● LANDAREAK ●

Musika



Jakoba Errekondo
2392. alea
2013-11-24

Tweet 4

Gomendatu 4

2 0



Aurten ere etxekalte nabil. Gipuzkoako Ezkio-Itsasoko Igartubeiti dolare-baserri ikaragarrian sagardo gotikoa. Nafarroako Baztango Arizkungo Gamioxarreko sekulako dolarean sagardo barrokua. Italiako Lazioko Genzano eta Casaprotan paleosagardoa. Eta sagardi-dolare-tina-barrika bidean, bateko eta besteko lagunen eta ezagunen sagarrei eskua luzatu, baina etxeko bukoi eta barrikak bete gabe. Berandu-sagardoaren zale garenari eskerrak.

Goiz-sagardotarako lanak abantaila bakarra du, nire ustez: muztio gozo eta sagardo berriaren egarritik asetzera lehentxeago igarotzea. Udazkenean bertan, garai batean bezala, barrikotean sardina zahar gazi edo gaztaina lehorren laguntzailetarako, hor nonbait; urte osorako jasotzeko, behintzat, erdipurdiko sagardoa izango da. Berandu-sagarrarekin egindako sagardoak alde ederreko festa antolatzen du ahoko zeruan! Eta, maiz, bigarren urtean eta hobea.

Botilako hori gero izango da, eta gero gerokoa bezala, garaian garaikoa garaiz. Orain sagardoa ontzietan dago, lehen irakinaldia edo hartzidura egiten. Lehen horretan sagarraren azukrea alkohol bihurtuko da. Hartzidura hori aerobioa da, airea behar du, hobe esanda, aireko oxigenoa behar du. Oxigenoa hartu eta sortzen duen karbono dioxidoa kanporatzeko ontziaren gaineko zuloa irekita edukitzen da. Pospolo piztua zuloaren parean jarri eta itzaltzen duen artean CO2 ateratzen ari den seinale. Itzaltzen ez duenean ontzia itxi daiteke, oxigenorik behar ez duten gainontzeko hartzidurek sagardoa irauli dezaten.

Ontzia irekita dagoen artean intsektu asko bertaratzen da. Bi eratako bititariak izaten dira ohikoenak. Batetik



2392 zenbakia.
2013ko azaroaren 24a
AZALA PDF-n

Asteakaria | Larrun | Hemeroteka
Elkarrizketatuak | Egileak | Atalak

Babeslea



Argia

Atsegin dut

6.294 people like Argia.



Jaso egunero email bakarrean eguneko 10 albisteak. Eta astean behin, asteakaria. **Dohainik.**

Idatzi e-posta albiste bulet

Ale berean...

Hezkidetza hezkuntzan

Eskola mistotik hezkidetzara jauzi egiteko garaia

Amaitu Alonso Sanchez

"Orain Senegalen aurkituko dudana gogorrago izanen dela badakit"

Rafa Xambó

"Telebista hondatu dute Valentziako diru-

azukrearen zale den erle eta liztor jendea. Eta bestetik ozpin-eulia (Drosophila melanogaster). Drosophila hitzak ihintzazalea esan nahi du, eta agian genero horretako batzuk hala izango dira, baina gure upategietan ibiltzen den horri batez ere karbono dioxidoa gustatzen zaio. Edozein fruituk, heldu eta usteltzen denean, azukre-alkohola-ozpina bidea egiten du, etengabe CO2 askatuz. Ozpin-euliari fruitu-euli ere deitzen zaio.

Casaprotan Alex lagun sagardogilea harrিতuta zegoen zenbat ozpin-euli bildu zen, jotako sagarretara lehendabizi, eta barrikaren gaineko zulora ondoren. Milaka eta milaka, gero eta ugariago. Urrutitik usaindu zuten CO2-a, baita azkar asko hurbildu ere!

Alexek barrikaren aldamenean lo egin behar du. Eulitxoei ez zaie hura interesatzen, barrika baizik. Bizilagun egin dira. Musika dotorea sortzen omen dute. Sagardogintza da, agian, euskal musika instrumentu zaharrena. Txalaparta bera baino ere...



kutxa publikoak erruz arpilatuz"



Wolfram sindromea

Gaixotasun arraroari eta ezjakintasunari aurre egiten



Hondakinak

Gipuzkoa, errauskailutik Zero Zabor lurralde izatera



Yurre Ugarte idazle eta gidoilaria

"Irrazionala den orenen aitortza da 'Katu hegoduna' komikia"



Gomendatu



PDF BERTSIOA

INPRIMATU

0 comments



Start the discussion...

Best ▾ argia

Share

Login ▾

Be the first to comment.

Subscribe

Add Disqus to your site

Kazetaritza independentea eta profesionala egiten dugu, euskaraz eta euskaldunontzat.

Idatzi helbide elektronikoa

HARPIDETU ORAIN

ALTA EMAN

EGUNEKOA POLITIKA NAZIOARTEA GIZARTEA KULTURA EUSKARA EKONOMIA ASTEKARIA MULTIMEDIA

Nor gara | Kontaktua | Mapa | Lege oharra | RSS jariora | Iragarri | Harpidetu | Tel: 943 371 545

1998 - 2014 KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratzeko libre zara, beti ere, gure egiletza direla aitortzen baduzu eta baldintza beretan egiten baduzu.